

Kooperatiba esparruan enpresa kudeaketa proiektua

2009/06/10

2005/2008 Zientzia eta Teknologia Planaren baitan, Luxio Ugarte eta Iñaki Dorronsorok, Kooperatiba Esparruan Enpresa Kudeaketa Proiektua zuzendu dute.

Horretarako, ETEO, LANKI, MIK, IKERLAN, LKS, SAIOLAN eta MONDRAGONeko pertsona talde baten laguntza eta partaidetza izan dute.

Proiektuaren helburua, inguru aldakor eta lehiakor batetan enpresek aurre egin behar dieten kudeaketa eta/edo antolakuntzaren inguruko arazoak ulertu eta ezagutza sortzea da.

Puntu honetatik abiatuz, ikerketak, “eredu bikainak” eta eguno egoeratik eredu bikain horietara “eraldaketa” erraztuko duten eskuhartze metodoak sortuko ditu.

Giza eta antolakuntza esparruetan egiten den azterketa bat izanik, arlo estrategiko honek, “kudeaketa arazoei” erantzuten die, produktu, prozesu edo teknologia zehatzei baino. Behar bada, ekarpenik garrantzitsuena, “gogoeta aktibo” batetara bultzatzearena da. Hau, galderak egin eta hauei ahalik eta oinarri teoriko eta enpiriko maila altuenarekin erantzutera behartuz lortzen da.

Proiektuak, ikerketa teoriko edo akademikoa eta enpirikoa bateratu ditu, erakundeetarako eskuhartze/aplikazio ereduak lortzeko. Beti ere, antolakuntza kooperatiboan eta Berrikuntza orokorrean eta ekintzailetasuna buruz-buru.

Ikerketa honek, zazpi lan arlo izan ditu:

- I. Kultura eta balio kooperatiboak.
- II. MCC eta bere kooperatibetako kudeaketa eta antolakuntza ereduak.
- III. Sozietate-partaidetza erak.
- IV. Jarrera eta kultura berritzailea.
- V. Ekintzailetasuna (negozio eta kooperatiba berrien sorrera).
- VI. Erakunde berritzailea.
- VII. Integrazio puntua

